

	AZPEITIA 2020 Azpeitiko Estrategia Plana 1go Barne Saioa	Barnesaioa: 1 Bilera data: 2013/01/24 Hasiera: 9'30tan Amaiera: 11'15tan
---	--	--

AZPEITIA 2020

Azpeitiko Estrategia Plana

BILERA LEKUA: Udaletxeko Udalbatza Aretoa

BERTARATUTAKOAK:

UDALA

Eneko Etxeberria	Alkatea
Izaskun Ceciaga	Ingurumena/Tokiko Agenda 21-prozesuaren koordinatzailea
Aitor Aranguren	Zinegotzia (prozesuaren koordinatzailea)
Maixol Odriozola	Kontu-hartzailea
Eduarne Zubia	Gizarte Zerbitzuetako burua
Eduarne Aranbarri	Berdintasun Teknikaria
Nerea Lopetegi	Kirol Teknikaria
Ina Sagarzazu	Kirol patronatua
Ildefonso Lizarralde	Ingeniari teknikoa
Jose Angel Aristi	Udaltzain-burua
Aintzane Agirre	Udal Euskaltegia
Aloña Larrañaga	Gazteria Teknikaria

ESKUALDEKO ENTITATEAK

Jesus Agirre	Iraurgi Lantzeneko Gerentea
Jesus Mujika	Iraurgi Lantzeneko Turismo Teknikaria
Begoña Beobide	Loiola Berrikuntza Fundazioko Zuzendaria
Itziar Abarisketa	Ezagutza Guneako Teknikaria
Iñaki Zabaleta	Azpeitia Lantzen S.A.-ko Gerentea
Yurre Peñagarikano	Urkomeko Gerentea
Iñigo Amiano	Bertan Merkataritza Elkarteko Teknikaria

MINUARTIA ENEA/IKERTALDE

Ana López
Ainhoa Mitxelena

**Pilar Arrietak (Kultur Teknikaria), Patxi Saez-ek (Euskara Patronatuko Zuzendaria) eta Orkatx Goenagak (Ingurugiro Etxea Fundazioko Zuzendaria) ezin izan zuten etorri*

GAI ORDENA

1. Alkatearen agurra eta aurkezpena
2. Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren berrikuste prozesuaren gakoak
3. Egutegia
4. Arlo bakoitzeko lehentasunak eta epe motzerako aurreikuspen nagusiak jasotzea.

	AZPEITIA 2020 Azpeitiko Estrategia Plana 1go Barne Saioa	Barnesaioa: 1 Bilera data: 2013/01/24 Hasiera: 9'30tan Amaiera: 11'15tan
---	--	--

LABURPENA

1. Alkatearen agurra eta aurkezpena

Hasteko, Alkateak bertaratutakoei ongi etorria eman eta **Ekintza Plan estrategiko baten prozesuaren hasieraren berri** ematen die. Plan hau iraunkortasunaren printzipioetan oinarrituko dela azpimarratzen du eta, horretarako, Tokiko Agenda 21 tresna egokia dela esaten du.

Azpeitiak jadanik badu Agenda 21eko bere II. Ekintza Plana (2010an onartua) baina honek bakarrik ingurumen eta lurralde arloak jorratzen ditu. Horregatik, orain arlo soziala eta ekonomikoak bertan txertatzeko erabakia hartu egin da, honela Plan horri izaera estrategikoa emateko asmoz. Alkateak, erabaki hau talde politiko guztien akordioaren bitartez hartu dela azpimarratzen du.

Honetaz gain, prozesua aurrera eramateko sortu diren **mekanismoak** azaltzen ditu: mahai teknikoa (udal eta eskualde mailako teknikariez osatutakoa), politikariak eta herritarrak (sektore ezberdinak ordezkatzen dituzten eragileez osatutakoa).

2. Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren berrikuste prozesuaren gakoak

Jarraian, laguntza teknikoak udalerriko Tokiko Agenda 21eko **aurrekariak eta iraunkortasunaren arloan izandako ibilbidea** aurkezten ditu. Azpeitia arlo honetan aitzindari izan dela aipatzen da eta azkeneko hamarkadan beti iraunkortasun gaietan aurreratuago ibili izan diren udalerriekin batera pausuak eman dituela azpimarratzen da.

Aurrekariak aurkeztu ondoren, berrikuste prozesuaren inguruko **metodologiaren oinarriak** aurkezten dira.

Ekintza Plan berriak izaera estrategikoa izateko elementu guztiak izango ditu, hau da, ikuspegi bat, xedeak, helburu eta lerro estrategikoak, programa operatiboak eta ekintzak. Aldi berean, Plana guztiz eraginkorra izango da. Horretarako Ekintza Planaren kudeaketa eredua jarraitu behar izango da urteroko jardueren programazioa landuz.

Ondoren, prozesu honen bitartez jorratuko diren gaiak azaltzen dira, ingurumenari lotutako gaiak (energia eta hondakinak) Ekintza Plana formulatzeko fasean bakarrik jorratuko direla zehaztuz:

	AZPEITIA 2020 Azpeitiko Estrategia Plana 1go Barne Saioa	Barnesaioa: 1 Bilera data: 2013/01/24 Hasiera: 9'30tan Amaiera: 11'15tan
---	--	--



Prozesuaren **hiru elementu nagusiak** azaltzen dira: herritarren parte-hartzea, udal teknikari eta politikarien ekarpena eta laguntza teknikoarena. Hiru elementu hauen arteko oreka bat bilatu behar dela azaltzen da, prozesua horietako elementu bakar batean oinarritzea ekidinez.

Jarraian, proiektuaren **fase bakoitzeko nondik norakoak** azaltzen dira: diagnostikoa, formulazio estrategikoa eta ekintza plana, fase bakoitzean bileran bertan dauden eragileen eginkizunak zehazten direlarik.


Laburbilduz, eta momentuz diagnostiko fasean atentzioa jarritz, pausuak ondoko hauek izango dira:

1. Laguntza teknikoak eskuragarri dagoen informazioa eskatuko dio eragile bakoitzari (Izaskun Cegiagaren bitartez).
2. Horrekin eta iturri estatistikoetatik ateratako informazioarekin, gai bakoitzeko fitxa baten zirriborro bat osatuko da.
3. Ondoren, gaiaren arabera, dagokion teknikariarekin elkarriketa bat egingo da informazioa kontrastatzeko eta informazio kualitatiboa jaso ahal izateko.
4. Bestalde, herritarren parte-hartze prozesutik jasotako ekarpenak fitxa bakoitzean ere barneratuko dira.
5. Horrela, teknikari eta herritarren ekarpenak barneratu ondoren, fitxak teknikariei bidaliko zaizkie (bakoitzari bere gaikako fitxa), honek edukiak onartu edo, beharrezko bada, osatu edo zuzendu ditzala.

3. Egutegia

	AZPEITIA 2020 Azpeitiko Estrategia Plana 1go Barne Saioa	Barnesaioa: 1 Bilera data: 2013/01/24 Hasiera: 9'30tan Amaiera: 11'15tan
---	--	--

Azkenik, proiektuaren **egutegia** azaltzen da, aurreikusita dauden bilerak aipatuz.



Horrela, eta laburpen moduan, urtariletik martxoaren amaierara arte diagnostikoa burutuko da. Behin diagnostikoa amaitutzat ematen denean, Aste Santua ondoren, formulazio estrategikoa egingo da, hau da, ikuspegia formulatu, xedeak finkatu eta helburu estrategikoak zehaztuko dira. Hortik abiatuta eta apiriletik ekainaren amaierara arte, ekintza plana formulatu egingo da, uztailaren hasieran udalbatzan onartua izateko aurreikuspenarekin.

4. Arlo bakoitzeko lehentasunak eta epe motzerako aurreikuspen nagusiak jasotzea.

Bileraren azkeneko partean, bertaratutakoek arlo bakoitzeko berezitasunak edo egun eta epe motzean aurreikusitako plan eta ikerketa nagusiak azaltzen dituzte. Jarraian eremu bakoitzaren inguruan jasotako informazioaren laburpena zehazten da:

IRAURGI LANTZEN GARAPEN AGENTZIA

Enpresa

- Orokorrean, enpresak nahiko txikiak direla ikusita, badaude zerbitzu asko beraiek bakarrik aurrera eraman ezin dutenak. Horregatik, enpresei, beraien kudeaketan laguntzeko zerbitzu berri bat sortu da.
- Eskualdeko gazteen formazioa ez da guztiz enpresen beharretara egokitzen.
- Talentuak eskualdetik ihes egiteko arriskua dago

	AZPEITIA 2020 Azpeitiko Estrategia Plana 1go Barne Saioa	Barnesaioa: 1 Bilera data: 2013/01/24 Hasiera: 9'30tan Amaiera: 11'15tan
---	--	--

- Kanpoan dauden goi-mailako eta doktorego formazioa duten eskualdeko gazteak hemengo enpresetan lan egitera bueltatzeko saiakerak egiten ari dira ekimen ezberdinen bitartez.

Turismoa

- Eskualde mailako Plan Estrategiko bat dago.
- Turismo eremuko lan ildoak Eusko Jaurlaritzak zehaztutako bidean oinarritzen dira.

Ezagutza gunea

Enpresak

- 18 enpresen gerenteek osaturiko lantalde bat sortu da eremu ezberdinetan haien arteko elkarlana aztertu eta sustatzeko helburuarekin.
- Enpresei zuzendutako etengabeko formazioa eskaintzen dute.

Ikastetxeak

- Batxilergoko azken kurtsoan dauden ikasleei zuzendutako orientazio programa
- Ekintzailetasun baloreak gazteekin nola landu
- Ikasleekin batera etorkinen inguruan landu (beraiek aukeratutako gaia)

Udaletxeetan

- Loiola Berrikuntzarekin batera eskualdeko Enplegu Plana burutu.
- Dibertsifikazio prozesuak bultzatzeko aukerak aztertu.

LOIOLA BERRIKUNTZA FUNDAZIOA

- Helburu nagusia berrikuntza teknologikoa bultzatzea da.
- Ekintzailetasuna sustatzea, batez ere teknologikoa.
- Talentua atxiki eta kanpoan daudenekin zubi-lanak sortu. Ekimen bat aurrera eraman da eskualdeko arlo ezberdinetako doktoreekin.

MERKATARITZA

- Udalerriko merkataritza sustatzeko Plana egiten ari da (PERCO 2005ean egin zen)
- Bertako komertzioa indartu eta herritarrek bertan erosketak egitera bultzatzea da helburua.
- Merkatarien formazioa bideratzen da.
- Merkagune programaz baliatzen dira, bertatik jasotzen dituzten laguntzaren bidez, hainbat ekimen martxan jartzeko.

PAREKIDETASUNA

- Azpeitiko Parekidetasun Plana 2009an onartu zen.
- Giza zerbitzuekin batera genero indarkeriaren aurkako Protokoloa egin da.
- Azkeneko 5 urteetan ikastetxeekin lan egiten da parekidetasunaren oinarriak txikitatik irakatsi eta transmititzeko helburuarekin.

URKOME

- Bi arlo nagusi: lehen sektorea bultzatu eta landa garapena (landa eremuan bizi direnen bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin).

	AZPEITIA 2020 Azpeitiko Estrategia Plana 1go Barne Saioa	Barnesaioa: 1 Bilera data: 2013/01/24 Hasiera: 9'30tan Amaiera: 11'15tan
---	--	--

- Urtero plangintza bat egiten da EREIN eta LEADER laguntzak kudeatzeko, plangintza hau PAC (Política Agraria Común)-aren zehaztasunen arabera formulatzen delarik.
- Urkomeren juntakideak udaletxeak eta elkarteak dira. Horiekin batera lantzen da urteko plangintza.

KIROLA

- Arlo honetako hutsune nagusienetariko bat urteko plangintzarik ez izatea da, intuizio eta eskaeren arabera martxan jartzen dira ekimenak.
- Hiru ildotan lan egiten da nagusiki: eskola-kirola, errendimendua eta aisialdia.
- Hiru ildo hauetan eragileei formazioa eskaini eta hauentzat diru laguntzak bideratzen dira.
- Gazteei (12-18 urte) zuzendutako aukerak eta kirol eskaintza diseinatzeko diagnosi bat egin zen duela urtebete.

UDAL KIROL PATRONATUA

- Lehentasun nagusia instalazioak berritzea da, orokorrean nahiko zaharkituta omen daude eta.

UDALTZAINGOA

- Orokorrean udalerrri guztiko segurtasuna bermatu, arlo ezberdinekin koordinatuz.

GIZARTE ZERBITZUAK

- Urteroko planak egiten dira.
- Momentuan arazo nagusia zailtasunak dituzten herritarrengana heltzea da.
- Eusko Jaurlaritzak “cartera de servicios” deitzen dena onartu behar du eta horren arabera udalak jakin ahal izango du zenbateko aurrekontua duen gizarte kontuetara bideratzeko.
- Sail edo departamendu guztiak koordinatzeko mekanismo baten beharra aipatzen da.

EUSKERA PATRONATOA

- Euskera Patronatoak ildo ezberdinetan bideratzen du bere lana: etorkinak, enpresak, ikastetxeak eta udal euskaltegia.
- 4 urterako Plan bat egiten ari dira momentu honetan.
- Euskaltegiak bere urteko plangintza du (HABE-n sartuta dago).
- Epe motz-ertainerako erronka bat herritarrek 4. profilera heltzeko baliabideak jarri eta sustapen lana egitea da.
- 16 urte baino gutxiago duten etorkinekin lan egiten da.

KONTUHARTZAILEA

- Bere izaera dela eta, arlo honek ez du lehentasun ezta Plan zehatzik. Dena dela, prozesu honen eremuan barne koordinazio mahai edo mekanismo bat sortzearen beharra eta onurak aipatzen dira.

GAZTERIA

	AZPEITIA 2020 Azpeitiko Estrategia Plana 1go Barne Saioa	Barnesaioa: 1 Bilera data: 2013/01/24 Hasiera: 9'30tan Amaiera: 11'15tan
---	--	--

- Plangintza orokor bat badago.
- Gipuzkoa mailan udal teknikariek osaturiko lantalde batean parte hartzen da.
- Epe motzerako erronka bat etapa bakoitzeko beharrak eta eskaintza sistematizatzea da.

ENERGIA/JARDUERA BAIMENAK

- Gaur egungo arazo bat gazte lokalek sortzen duten zarata da.
- Arlo honetako erronka bat telekomunikazio sistemak bideratzea da.
- Energia arloan ekimen ugari egin dira azkeneko urteetan baina oraindik badago hobekuntza marjina energia modu eraginkorragoan erabili ahal izateko.

AZPEITIA LANTZEN (Etxebizitza)

- Epe motz eta ertainean eraikin berririk egiteko asmorik ez dago.
- Egun Babes ofizialeko alokairuen kudeaketa da lan ildo nagusia (Bizigune Programa).

Ondoren, bertaratutakoek aurkeztutakoaren inguruko galderak eta ekarpenak egiten dituzte. Horien artean, Iraurgi Lantzeneko Gerenteak eskualdeko entitateak prozesu honetan izan beharko lukeen eginkizunaren inguruko zalantza zabaltzen du. Gai honen inguruan eztabaida txiki bat sortzen da. Azkenik, gai jakin batzuetan eragile ezberdinen koordinazioa beharrezkoa izango dela ikusten da, izan ere, arrazoi horrengatik mahai teknikoan parte-hartzera gonbidatuak izan dira. Baina Planaren ardura eta bere onarpena udal mailan egingo dela garbi gelditzen da.

Bestalde, Planaren segimendurako aurreikusita dauden mekanismoak edo bideak zeintzuk izango diren inguruan hitz egiten da. Alde batetik, sendotuta dauden Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planen segimendurako Programen (bat lhobek eta bestea GFA-ak bultzatuta) bitartez, urtero Planaren kudeaketa eta segimendua egiten dela aipatzen da. Bestalde, sortu berria den mahai tekniko horrek Planaren segimenduan ere parte hartzeko asmoa dago. Prozesu hau amaitzen denean, mahai honen funtzionamendurako proposamen bat egingo dela aipatzen da, Plana indarrean dagoen bitartean martxan jarraitzeko helburua bilatuz.

Bilerari amaiera ematen zaio.